

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

SEGURTASUN SAILA

5085

IRAGARKIA, honen bidez, Ertzaintzaren zuzendariak eta Segurtasun Saileko segurtasuneko sailburuordeak emandako ebazpenak jakinarazten dira, honako legeetan ezarritakoa haustearekin lotuta: 4/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Herriarren Segurtasuna Babestekoa (LO 4/15) eta 5/2014 Legea, apirilaren 4koa, Segurtasun Pribatuarena (SPL).

Aipatutako ebazpenak zuzenean jakinaraztea lortu ez denez, iragarki hau argitaratzen da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

1.– Ebazpen horiek ez dute administrazio-bidea agortzen, eta beraien aurka, gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango zaio segurtasuneko sailburuordeari (Ertzaintzaren zuzendariak ebatzitakoetan) edo Jaurilaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuari (segurtasuneko sailburuordeak ebatzitakoetan), bi kasuetan hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzan (Larrauri Mendotxe bidea 18, Erandio) espedientea ikusteko aukera dago.

2.– Isuna ordaintzeko epea:

a) Hilaren 1etik 15era bitartean jakinarazitako isuna bada, jakinarazpenaren egunean hasi eta hurrengo hilaren 5era arte, edo, egun hori balioduna ez bada, hurrengo egun baliodunera arte.

b) Hilaren 16tik azken egunera bitartean jakinarazitako isuna bada, jakinarazpenaren egunean hasi eta hurrengo hilaren 20ra arte, edo, egun hori balioduna ez bada, hurrengo egun baliodunera arte.

Gora jotzeko errekurtoa aurkezteko hilabeteko epea isuna ordaintzeko epea baino beranduago amaitzen bada, errekurtoa aurkezteko epea amaitu ondorengo lehen egun baliodunera arte luzatuko da ordainketarako epea, baldin eta ez bada errekurtsorik aurkezten (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamenduari buruzko abuztuaren 31ko 212/1998 Dekretuaren 44.3., 44.1. eta 44.4 artikulua).

3.– Isuna honela ordaindu daiteke: Zehapen-ebazpenari erantsitako ordainketa-gutuna honako finantza-erakunde hauetan aurkeztuta: Kutxabank, Banco Santander, Laboral Kutxa, Sabadell Guipuzcoano, Bankia, Bankoa, BBVA, la Caixa, eta gainontzeko erakundeen txartelak erabilia. Internet: <http://www.euskadi.net/nireordainketa>, ordainketa-gutuneko datuak erabilia.

4.– Isuna borondatezko epe horretan ordaintzen ez bada, premiamendu bidez ordainaraziko da interesdunaren ondaretik, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 101.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

5.– Herriarren segurtasuna babesteko martxoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren 36.16 artikuluan aurreikusitako arau-hausteengatik adingabeei ezartzen zaizkien isunak eten ahal izango dira, baldin eta, arau-hausleek eta beren legezko ordezkariak eskatuta, tratamendua edo errehabilitazioa egitea onartzen badute, beharrezko dutenean, edo berriz hezteko jarduerak egitea onartzen badute (Legearen bosgarren xedapen gehigarria). Horretarako, asmo hori adierazi

beharko zaio administrazio honi, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun balioduneko epean.

Eranskinean aipatutako interesdunak jakinaren gainean egon daitezen argitaratzen da hau, eta banakako jakinarazpenaren balioa izango du haientzat.

Jakinarazpen honek Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Erandio, 2021eko irailaren 16a.

Segurtasuneko sailburuordea,
JESÚS MARÍA ZUBIAGA NIEVA.

ERANSKINA

NAN/AIZ/IFK	Erreferentzia	Arau-haustearen eguna	Ebazpenaren eguna	Zehapena	Hautsitako artikulua
Y1036964T	405X2007533-01	2019-11-09	2021-05-18	602 euro / kentzea	36.16 LO 4/15
Y6304887A	405X2009262-09	2020-04-25	2021-06-22	700 euro / kentzea	36.16 LO 4/15
78885812K	405X2009267-09	2020-05-05	2021-06-15	1.300 euro / kentzea	36.16 LO 4/15

Kentzea: Atzemandako susbtantzia edota arma kentzea